

ALKATEAK GERTUTIK: MIKEL SERRANO

•Zuek bai jakin!/: Asensio Sudupe, beti lanerako prest •Izerdi patsetan: Iker Zabaleta

•Boteprontoan: Iñaki Okariz

Herri Aldizkaria

Otamotz

2010eko

maiatza

157. alea



Herri Aldizkaria

Otamotz.com

Albisteak, bideoak, argazki bildumak, gida, agenda,
inkestak, eztabaidagunea, entzungaiak...
URRETXU ETA ZUMARRAGAKO ATARI DIGITALEAN
BEHAR DUZUN GUZTIA AURKITUKO DUZU!

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Ikertzaileak eta
berritzaileak gara,
ikasteko eredu propioa
daukagu...

desberdinak gara!
Arrazoi gehiago behar
dituzu?

**MATRIKULA ZAITEZ
MONDRAGON
UNIBERTSITATEAN!**



GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

- > Mekanikako Ingeniaritzan Gradua
Grado en Ingeniería Mecánica
- > Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzan Gradua
Grado en Ingeniería en Diseño Industrial y Desarrollo De Producto
- > Industria Antolakuntzako Ingeniaritzan Gradua
Grado en Ingeniería en Organización Industrial
- > Industria Elektronikako Ingeniaritzan Gradua
Grado en Ingeniería en Electrónica Industrial
- > Informatikako Ingeniaritzan Gradua
Grado en Ingeniería en Informática
- > Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritzan Gradua
Grado en Ingeniería en Sistemas de Telecomunicación

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

- > Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Gradua
Grado en Administración y Dirección de Empresas
- > Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzan Gradua
Grado en Liderazgo Emprendedor e Innovación

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

- > Ikus-entzunezko Komunikazioan Gradua
Grado en Comunicación Audiovisual
- > Haur Hezkuntzan Gradua
Grado en Educación Infantil
- > Lehen Hezkuntzan Gradua
Grado en Educación Primaria

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldúa **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Oihana - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Alkateak gertutik: Mikel Serrano
- 11 Gure gomendioa**
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**
Apirilean sekulako beroa, maiatzean hotza...
Zer ari da gertatzen? Zer nahiago duzu?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 16 Klik eta klik**
Gotzon Aranburu
- 19 Zuek bai jakin!**
Asensio Sudupe
- 23 Argazki zaharra**
- 24 Izerdi patsetan**
Iker Zabaleta
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**
Iñaki Okariz



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du. Bestalde, Otamotz Tokikom ekimeneko kide da.

Alkateak gertutik: Mikel Serrano auto zalea

Mikel Serrano Zumarragako alkatea Urretxuko San Martin auzoan jaio zen duela 38 urte. Bere aita zena-ren eraginez hasi zen udaletxean lanean: lehenengo Urretxun eta gero Zumarragan. Umetan pilota zuen zaletasun nagusia eta egun auto klasikoak ere oso gustuko ditu.



Zer esango zenuke zure familiaz?

Gurasoak pertsona arduratsuak izan dira eta euren jarrerarekin pertsona orok izan behar dituen balioak irakatsi dizkigute: konpromisoa, leialtasuna, zintzotasuna, errespetua... Aitak Irimon lan egin zuen eta bertan ordezkari sindikala izan zen. Ciudad Realeko Malagon herrikoa zen: 17 urterekin etorri zen eta 57rekin hil zen. Aitak bihotza erditutua zuen: hemendik urrun jaio zen, baina hemen oso ondo integratu zen eta Euskadi aurrera ateratzeko bere ekarpena eskaini nahi zuen. Kanpotik etorri zen, baina oso argi zuen bere semeek ikastolara joan behar zutela eta euskal kultura bizitzeko aukera izan behar zutela: anaiaren dantza saioetara joaten zen eta nire pilota partidetara ere etortzen zen. Horrek guztiak kalitatezko pertsona zela erakusten dit eta ezagutu zuten guztiak zintzoa zela esan didate.

Mikel Serrano Zumarragako alkatea, Antion, bere lehengusuaren Mini Cooper autoarekin.

Amari buruz zer esango zenuke?

Anaia-arrebetan gazteena da eta amaren aldetik ezagutu dut familia giroa. San Martin auzoan bizi nintzen, baina nire erreferentzia Kalebarreneko 10 zenbakia zen: amamaren etxea. Askotan gogoratzen naiz oraindik bere txokolateaz. Bere etxean osaba-izebekin eta lehengusuekin elkartzten nintzen. Nire amak asko zaindu du senitartekoen arteko harremana. Bera zen anaia-arreba gazteena eta bera zen bikotekide kanpotarra zuen bakarra. Pentsa horrek zer suposatuko zuen aita eta ama elkarrekin hasi zirenean! Baina amamak asko maite zuen aita. Elkar ulertzeko arazoak zituzten arren, amamak ez baitzuen ondo hitz egiten gaztekeraz, harreman estua zuten. Aitak amaren familiaren onarpena lortu zuen. Bere senitartekoekin ere badut harremana, noski: hemen bizi direnekin eta hangoekin.

Nola gogoratzen duzu haurtzarora?

Egoera ekonomikoa ez zen ona. Gainera, Irimo sekula ez da Orbegozo bezain indartsua izan. Hori etxean nabaria zen: ez zitzaigun ezer falta, baina gerrikoa estutu beharra zegoen. Frontoia asko gustatzen zitzaidan: ikastolatik irten ondoren, etxera joan aurretik, pilotalekutik pasatzen nintzen. Etxera izerdi patsetan itzultzen nintzen eta amarekin istiluak izaten nituen. Igandetan amak zapatak jartzen zizkidan mezetara joateko. Hala, ez nintzela frontoira joango uste zuen. Zapatekin ere pilotan jokatzeko nuen, ordea: askotan mezetara joan gabe, gainera! Halakoetan jipoia bikoitza izaten zen.

Futbolearen ere jokatu zenuen.

Bai, baina 15-16 urterekin Urola uztea eta pilotan buru-belarri aritzea erabaki

nuen. Dena den, 21 urterekin Urola itzuli nintzen. Bigarren taldea atera zuten eta jokalaria ohiei deitu ziguten: Aitor Urkiola, Txutxi...

Zein postutan jokatzeko zenuen?

Atzean jokatzeko nuen. Pilotan ere atzean jokatzeko nuen. Noiz edo noiz aurrelari jokatu nuen, baina oso gutxitan.

Nolako atzelaria zinen?

Jendeak esan beharko du... Ez nuen sekulako joa, baina erresistentzia handia nuen. Atzelari gogorra nintzen. Bestalde,

“Aitak bihotza

erdibitua zuen:

hemendik urrun jaio

zen, baina hemen oso

ondo integratu zen”

nahiz eta eskuina izan, ezkerrekin ondo jokatzeko nuen. Batzuek ezkertia nintzela uste zuten.

Herriarte txapelketa Urretxurekin eta Zumarragarekin jokatu al zenuen?

Urretxurekin bakarrik jokatu nuen. Urtebetez amamaren etxean errolatuta egon nintzen Zumarragarekin jokatu ahal izateko, baina federazioak ez zidan utzi. Beste toki batzuetan halakoak egin ziren eta ez zen ezer gertatu, baina Azkoitiko Belarrik, Idiazabalgo Azurmendik, Amezketako Xaltonek, Urretxuko Letek, Usurbilgoek eta Donostiakoek salaketa jarri zuten federazioan. Donostiara joan behar izan nintzen nire aitarekin nire bertsoa ematera. Zumarragarekin pilotan

jokatu nahi nuela eta, estatutuek agindutakoa betez, bertan errolatu nintzela esan nuen. Segurara jokatzeko prest joan nintzen, baina azkenean ezin izan nuen jokatu. Hala, Urretxurekin bakarrik jokatu nuen: infantila nintzenean bi edo hiru aldiz eta, gerora, nagusien mailan. Aritz Lasak infantiletan jokatzeko zuen eta Jokin Lasak jubeniletan. Nagusien bikotea osatzeko jendea behar zuten eta nirekin harremanetan jarri ziren. 10 urte neramatzan pilotan jokatu gabe, baina baiezkoa eman nien beraiek jokatzeko aukera izan zezaaten. Juanjo Sagastibeltzarekin eta Aitor Gagorekin jokatu nuen.

Non egin zenituen ikasketak?

Lizeotik Tolosara joan nintzen, papergintzako ingeniari teknikoa ikastera. Ikasketak bukatu nituenean, Sarralden hasi nintzen. Ondoren, trenbideetan kalitate arloan lan egiten zuen enpresa batera joan nintzen. Garai hartan Zumarragako trintxera egin zen. Burgosko txanpon fabrika ere lan egin nuen, ekoizpenaren arduraduna izan nintzen. Tolosako enpresa txiki bateko laborategiko arduraduna eta Mapfre aseguru-etxe kudeatzaile komertziala ere izan nintzen Goierriako.

Lan asko ezagutu dituzu...

Ez dut geldirik egoteko balio. Nire lehenengo lana Sarraldekoa izan zen. Karrera bukatu eta berehala izan zen. Urte sabatiko hartzeko asmoa nuen, baina Sarralden peoi lana eskaini zidaten eta lanean hastea erabaki nuen.

Nolatan hasi zinen politikan?

Nire aita ez zen alderdi sozialistako kidea izan. UGT sindikatukoa bai, ordea. Sindikalista petoa zen. Gerora ezagutu ditudan delegatu sindikalak ez dira nire



1974ko Gabonetan.

aitaren estilokoak. Aitak ez zuen uste errebindikazio oro baliagarria zenik: hausnarketa beharrezkotzat jotzen zuen. Hamaika ordu eman zizkion sindikalismoari. Gauean, etxean, dokumentuak prestatzen gogoratzen dut. Udaletxeko lanean ez dago ordutegirik, baina niretzat ez da gauza berria: etxean ikusi dut hori. Lanak fruituak ematen ditu. Zerrendetan aurkeztea eskaini zidatenerako, udaletxean lan egitea buruan nuen.

Argi al zenuen aurkeztekotan sozialistekin aurkeztuko zinela?

Niregana jo zuen lehena Paco Parra izan zen, baina urtetan independentea izan nintzen. Eskoltarekin. Indiano 2000. urtean hil zuten eta eskolta 2001ean jarri zidaten. Apirilaren 11n, sekula ez dut ahaztuko. Orduko neskalagunaren urtebetetze eguna apirilaren 12a da eta ez nekien nola esan. Horretara ohitu

Zutik, ezkerretik hirugarrena, ikastolan.



gara, baina garai hartan ez zen hala. Neskalagunari halako urtebetetze oparia ematea sentitzen nuela esan nion. Egun hartan Donostiara joan ginela

*“Askok niganako
jokaera goitik behera
aldatu zuten, alderdi
sozialistarekin aurkeztu
nintzelako bakarrik”*

gogoratzen dut. Ordu luzetan Kontxan atzera eta aurrera ibili ginen ahalik eta gutxien nabarmentzeko. Garai hartan

hemen ateratzeari utzi nion, edozein tokitara joanda ere denak eskoltaren bila hasten baitziren. Zerrendetan azaldu nintzenean zeresana eman zuten: euskalduna, herrikoa, futbolearen eta pilotan ibilitakoa... Urretxuar askok niganako jokaera goitik behera aldatu zuten, alderdi sozialistarekin aurkeztu nintzelako bakarrik. Askok ni agurtzeari utzi zioten, urtetan elkarrekin harreman ona izandakoak izan arren. Ni ez naiz aldatu!

Ez duzu galdera erantzun... zergatik PSEkoa eta ez beste edozein alderditakoa?

Ez nintzen alderdi baten edo bestearen aldekoa, baina indarkeriaren aurkakoa nintzen. Argi nuen ezin dela inor hil ezberdin pentsatzeagatik. Urretxuko



Gurasoekin, anaiarekin eta amonarekin, anaiaren jaunartze egunean.

udaletxean sartu nintzenean nire asmo bakarra herriaren alde nire onena ematea zen. Kudeaketa eta herriaren bizikaltatea hobetu nahi nituen. Esan beza-

“Nahiz eta politikan askok pauso luzeak ematen dituzten, nik pauso motzak ematea atsegin dut”

la, PSErekin aurkeztu nintzen baina independentea nintzen. Ez dut esango beste edonorekin ere aurkeztuko nintzenik, baina tira... Ezker abertzalekoekin harreman ona nuen eta Joseba Garmendia atxilotu zutenean justiziaren erabakia errespetatuko nuela esan nuen, baina arlo pertsonalean nire ger-

tutasuna azaldu nion. Bera bisitatzera joaten zirenei beragatik galdetzen nien.

Nola ikusten dituzu urretxuartasuna eta zumarragartasuna?

Behin, Iñaki Zabalarekin eta Pedro Iturberekin nengoela, Iñakiren ezagun bat etorri zen. Iñakik aurkeztu gintuen. “Nahiz eta urretxuarra den, Zumarragako alkatea da”, esan zuen. Sekula ez dut ukatu urretxuarra naizenik, baina bere garaian Urretxun eman nezakeen guztia eman nuen eta egun Zumarragan gauza berbera egiten ari naiz. Argi erakutsi dudala uste dut. Urretxuarra izatea ez du esan nahi Zumarraga ez maitatzea. Zumarragako alkate izatea niretzat ohorea da. Lehengora itzuliz, Iñakiri zera erantzun nion: “urretxuar bat Zumarragako alkate, amezketar bat Urretxuko alkate eta zumarragar bat Antzuolako alkate”. Gure eguneroko lanak definitzen gaitu eta ez toki batean edo bestean urte gehiago eman izanak.

Pilotariz, saria jasotzen.



Alkatetzara modu berezian heldu zinen.

Zerrendako bigarrena nintzen eta Anton ezagutzen dugunok bagenekien ez zituela bost legealdi emango alkatetzan. Ni zerrendako bigarrena nintzen eta banekien alkate izateko aukera hor zegoela. Estatuko gobernuan aldaketak egon ziren eta FEVEN postu batzuk libre gelditu ziren. Antonek perfila ematen zuen eta berarekin jarri ziren harremanetan. Herrian alderdiak bera kendu eta ni jarri zuela esan zen, baina hori guztiz faltsua da. Antonek, alderdiak eta nik ondo dakigu zer gertatu zen. Antonek nahi izan balu, legealdia bukatuko zuen eta 2011n ere hautagaia izango zen.

Alkatearen lana zuk espero bezalako al da?

Bigarrena izatearekin ez du inongo zerikusirik. Udaletxeko lana ezagutzen nuen, baina ez nekien inondik inora ere alkatea-

ren erantzukizun maila zer nolakoa den. Anton joan zenerako batzorde askotako burua nintzen, baina azken hitza alkatearena da. Arintasun handiz hitz egiten da alkatearen lanaz: alkateak ez du ordutegirik, ez du bizitza pertsonalik... Gure soldatez hitz egiten da, baina 3.000 euro pasatxo kobratzen dut. Erantzukizuna eta eskoltarekin ibili beharra ez dago diruz ordaintzerik.

Eta zein da alkate izatearen alde ona?

Egitasmoak aurrera ateratzen direla eta jendea gustura dagoela ikustea oso pozgarria da.

2011ko hauteskundeetara aurkezteko asmoa al duzu?

Alderdiak nahi badu, bai. Gasteizen gobernu aldaketa egon zenean jende askok Eusko Jaurlaritzara joan behar nuela esan zuen, baina herritarrek hala nahi duten bitartean alkatetzan jarraituko dut. Bestalde, nahiz eta politikan askok pauso luzeak ematen dituzten, nik pauso motzak ematea atsegin dut.

Epe luzera non ikusten duzu zeure burua?

Egia esan, Zumarragako alkatearen lana horren da arduratsua non ez dudan 2011tik harago begiratzen. Herritarrek ez bagaitzute gu hautatzen, beste zer edo zertan pentsatu beharko dut. Epe luzera? Ekarpelik egin dezakedala uste dudan bitartean, politikan jarraituko dut. Hori bai, zereginik ez dudala uste badut beste bide bat hartuko dut. Toki ezberdin askotan lan egin dut eta lan guztiak dira duinak.

Alkatearen lana oso lotua dela esan duzu, baina aisialdia ere izango duzu.

Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Kirola egitea asko gustatzen zait, baina iazko maiatzetik ez dut kirolik egin.

Frontenis, pala, spinning eta aerobic egiten nuen. Gorputza jipoitzen zuen eta hori onuragarria zen. Orain, erantzukizunak direla eta, kirola egiteko gogo gutxi dut. Ea eguraldi onak animatuta berriro kirola egiten hasten naizen.

Auto klasikoak ere atsegin dituzu.

Seat 850 Coupé bat eta Citroën Diane 6 bat ditut. Bata 1969koa da eta bestea 1971koa. Halako autoak BMWak eta antzerakoak baino erakargarriagoak iruditu zaizkit beti. Garai batean halako autoekin bidaiatzen zen. Andaluziara joatea 24 ordu kostako zitzaien.

Dantza ere atsegin duzu.

Saloi-dantzak batez ere. Koadrilan ez dago halako zaletasunik eta bikotekide ohi batekin hasi nintzen. Salsa, merengea, cha-cha-cha... dantzatzen ditut. Gehien gustatzen zaidana salsa da. Lehenago hasi ez izanaz damu naiz. Larunbat

“Larunbat gauean etxetik ateratzea eta tabernetan

dantza egitea asko

gustatzen zait, tragoak

jotzea baino gehiago”

gauean etxetik ateratzea eta tabernetan dantza egitea asko gustatzen zait, tragoak jotzea baino gehiago. Hemen ez dago horretarako aukerarik, baina Donostian bai.

Pilotan jokatzen al duzu?

Ez, baina arra barruan dut. 21na doazenean besaulkitik zutitzen naiz. Jokatzea

faltan botatzen dut. Pilotalekura joaten naizen bakoitzean Anttoni pilota bat eskatzen diot. Behin mutikoekin jokatu nuen eta haurra nintzenean bezala bukatu nuen: arropa bustita. Gainera, hurrengo egunean lehertuta nengoan. Hori bai, ondo pasatu nuen.

Zein duzu gustuko pilotaria?

Barriola oso gustuko dut, pertsona umila eta saiaturia baita. Beginok eta Zubietak etorkizun bikaina dutela uste dut. Zubietak bilakaera handia izan du, baina pauso handia emango du beti jotzera joan beharrean batzuetan eutsi ere egin behar dela ikasten duenean. Paskual, Laskurain, Mendizabal eta Beroiz ere onak dira. Aurrelarien artean, Irujok maila aparta du. Bestalde, Lasa dagoen tokian egoteak asko poztzen nau. Dena den, ez du Irujoren aurka jokatzeke mailarik. Errekurtso asko ditu, baina zenbait gauzatan mugak ditu. Maila ona du, baina ez dut Xala, Gonzalez eta antzekoen mailan ikusten. Hori bai, partida ona eginez gero, irabaz diezaike. Ederrena jendez gainezka ikusteak asko poztzen nau, baina Zumarragan promesen aldeko apustua egin dugu.

Bukatzeko, dagoeneko seme-alabak izateko ordua duzu...

Horretarako gaztea naizela esan izan dut beti, baina argudio horrek dagoeneko ez dit balio. Nire anaiak nik baino bost urte gutxiago ditu eta aita izan behar da. Ez diot seme-alabak izateari uko egiten, baina egun ez dut horretarako behar bezainbeste denborarik. Ez naiz oso umezalea, baina Ciudad Realeko lehengusuek euren seme-alabak nitaz gogoratzen direla esaten didate.

lan
munduratzea

herrilan
eta azpiegiturak



teknologia
eta berrikuntza

enpresei
laguntzea

Herriko txoko kuttuna: Zumarragan une on asko igaro ditut, baina toki kuttunena Antio da noski.

Umetan zer izan nahi zenuen: Politikoa ez behintzat... Gainontzeko mitikoez bezala, pilotaria edo futbolaria izan nahi nuen..

Pelikula bat: Pelikulak baino gehiago *Treintaytantos* telesaila gogoratzen dut. Musika, bikoteen arteko harremana... ondo oroitzen ditut. Orain euren egoeran nago.

Gustuko musikaria: Unearen arabera. Hemengoan artean Erramun Martikorena, La Oreja de Van Gogh, Amaia Montero, Mikel Marquez... Café Quijano ere asko gustatzen zait.

Abesti bat: Café Quijanoren *En mis besos*.

Urretxun biziko ez bazina, non biziko zinateke gustura? Zumarragan biziko nintzateke.

Futbol zalea al zara? Bai. Realekoa naiz baina askok Real Madrilekoa naizela uste dute. Izan ere, *Fak Zelai* Ariztin zuen kioskoan primeran pasatzen nuen Real Madril zalea nintzela esanez: denekin diskutitzen nuen eta denek nire aurka egiten zuten. Realekoa naiz, baina zirikatzea gustatzen zait.

Gustuko jokalaria: Lehengoan artean Zamora. Egungoan artean, bakoitzak bere dohainak ditu: Aranburu liderra da, Griezmann dotorea da... Datorren urtean merezi dugun tokian egongo garela uste dut.

Festa bat: Santaixabel eguna eta San Joan bezpera.

Mendi bat: Inguruko edozein: Izazpi, Beloki, Irimo, Korosti...

Hondartza bat: Donostian Zurriola Kontxa baino nahiago dut. Habanan eta Dominikar Errepublikan izan naiz eta azken herrialde honetako harearen modukorik ez dut beste inon ikusi.

Telebista saio bat: *Kalaka* ikusten nuen. Euzkitze gustukoa dut.

Liburu bat: Aspaldi honetan ez dut libururik irakurri, baina Gabriel Garcia Marquezenak gustatzen zaizkit. Giza jarreraren ingurukoak irakurtzea ere gustatzen zait.

Zein egunkari irakurtzen duzu? *Noticias*, *Diario Vasco*, *Gara* eta *Goierriko Hitza*. Hilean behin *Otamotz* ere irakurtzen dut, noski, eta atari digitalean askotan sartzen naiz.

Janari bat: Entsaladak eta amak egindako oilasko errea.

Ura edo... Garagardoa asko gustatzen zait. Unea egokia denean, ardo zuria ere edaten dut. Beltza, ordea, ez dut oso gustuko. Bestalde, Arkaitzetan sagardo freskoa edatea gustatzen zait.

Alkate bat: Odon, bere bertuteekin eta bere akatsekin. Santanoren lan egiteko modua ere atsegin dut eta Urtxuegiaren ekarpena handia izan da: sakrifizio eta erresponsabilitate eredua da. Bestalde, Antonengandik asko ikasi dut.

Krisiaren aurkako 2010 Plana 100 milioi euro

Gipuzkoan badugu Plana:

Inbertsio publikoa azkartzea, enplegua sortzea eta gure enpresei laguntzea, berrikuntzaren aldeko apustu irmoa dela medio.

OBRA PUBLIKOA ETA AZPIEGITURAK

Inbertsio publikoa azkartzea, lurralde osoak ahalmen handiko bide-sare ezin hobea izan dezan.

ENPRESEI LAGUNTZEA

Estualditik ateratzeko, berregituratzeko eta proiektu lehiakorrek sustatzeko neurriak bideratzea.

ENPLEGUA SORTZEA

Lan-munduan sartzen laguntzea zailtasun bereziak dituzten taldeei eta enpresetako gizarte-balioak sustatzea.

TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Zientzia eta teknologiako azpiegiturak garatzea eta berrikuntzaren aldeko apustua egitea, merkatu globalean lehiakortasun handiagoa izateko.

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 02 15
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

ATA

HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
JAVIER Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com

KEROS

Ekarki zure argazkiak eta nahi
duzun moduan aterako ditugu:
koadroak, mihiseak, muralak...

Labeaga, 35 Urretxu 943 72 41 60

BIONA

ARROZTEGIA

Altzariak neurritan

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

SUTAN

Tximiak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 baxua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

PLAZAOLA

ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA
☎ 943 72 13 70
Fax: 943 03 75 68

Lanbira

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

HERCE

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

Construcciones
MENDIOLA

Labeaga, 9. It. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Email: mendiola@mendiola.com
www.cmendiola.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINAZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79

Darmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13

TABERNA

Jatetxea

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Herri Aldizkaria

Otamotz

TOKI APROPOSA DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Oihana - 647 319 757 - beasain@iragarri.net

IKER

SUKALDEAK

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza - ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - ONATI



Burbuilak

Irati Elorrieta

Min ematen du deserriak. Zintzilik zauden sentsazioa jaiotzen zaizu. Burbuilak bezala, dantzan. Horren erreflexu da Irati Elorrietaren liburua. Berlin da protagonisten elkargunea eta Berlin bilakatzen dute egunerokoaren testigu: harreman arazoak, identitate arazoak, ametsak errealitate bihurtzeko arazoak... Istorio soltek osatzen dute liburua, baina kapituloz kapitulo protagonistek sortu duten burbuila bakoitzarekin

identitate bakarra duen kontakizuna osatzen du Iratik. Gertakizunek ez zaituzte aho zabalik utziko. Horietatik haratago joateko eskatzen dizulako idazle Algortarrak. Sira eta bere lagunaren azalaren bestaldeko intentsitateak sortuko baitu zugarra eta irakurtzen jarraitzeko kuriositatea. Min ematen du deserriak. Babesa behar izaten dugu. Espazio propio bat. Burbuila.

Araiz Padron



Hondartzan

Makala

Musikarako gustu ona duela esan daiteke Mikel Unzurrunzaga *Makala* zarauztarrak. Dantzarako erritmoa duen edozein musika gustatzen zaio, eta gero, entzun dituen milaka diska horiek bere erara erreproduzitu behar dituenean, primeran asmatzen du. Orain gutxi *Vamos a comer* (Lovemonk) single bikoitza atera du, baina haren aurretik 2005ean, *Hondartzan* mai-sulana kaleratu zuen. Disko beroa, diberti-

garria, Makalak musika beltzarekiko sentitzen duen erakarpenean kontrolaezinaren isla garbia. Hamabi abesti dira, funtsean funk eta reggae doinuen gainean jantzitakoak. Sanplerrak sartzen ditu, baina instrumentuekin egindako doinuek askoz ere pisu handiagoa daukate abestien osaketan. Aproposa lasai egoteko, dantzarako... Gauza askotarako.

Igor Susaeta




Mi vecino Totoro

Hayao Miyazaki

Gure artean *La princesa Mononoke* eta *El viaje de Chihiro* filmekin eman zen ezagutzera Miyazaki, nahiz eta urteak zeramatzan artelan miresgarriak eginez. Bi film horiek egiterako ondo irabazita zuen izen ona, *Porco Rosso* eta gaurko filmarengatik batez ere. *Mi vecino Totoro* 1988an estreinatu zen Japonian, baina hemengo zineetara ez zen heldu. Hala 21 urte beranduago estreinatu dute zineetan. Garaiko ahalbideak bikain


aprobetxatu zituzten animatzaileek, arreta handiena ñabardura txikietan ipiniz. Miyazakiren film hau maisulana da. Bere xalotasuna eta bere sinpletasuna hunkigarriak dira. Ikuslea maitemintzeko habilezia itzela du, haurtzaro garaia gogora ekartzen ditu eta azaldu ezineko poztasuna transmititzen du. *Mi vecino Totoro* ekainaren 11n Zelai Arizti aretoan ikusgai izango da.

ButaK 21 zineklub taldea



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal



Hondakin organikoentzako edukiontzia

Sasieta Mankomunitateak jakinarazi du hondakin organikoak jasotzeko edukiontzia jarriko duela aurki (nahi duenari giltza bat emango diote edukiontzi hori erabil dezan). Mankomunitateak dio Zubietako erraustegia ahalik eta azkarren jarri behar dela martxan, zabortegiak topera daudelako. Edukiontzi berrira botako dugun zaborra ez da zabortegietan pilatuko –konpost fabriketan tratatuko da–, baina horrek ez omen du esan nahi erraustegia beharrezkoa ez denik. Goierri eta Urola Garaiko alderdi ezberdinetako zazpi alkatek (Urretxukoak tartean) eta 55 zinegotzik Mankomunitateari eskatu diote edukiontzi hori jarri eta errauste-plantaren alde itsu-itsuan egin aurretik, beste alternatiba batzuk aztertzeko. Hernani eta Usurbilen abian jarri den zaborra biltzeko atez ateko sistema bideragarria ote den galdegin dute, eta gaiaren inguruko eztabaida bultzatzea beharrezkoa dela diote. Usurbil eta

Hernaniko lankideak ditugu guk. Zabor biltzekat polemika handia sortu du. Atez atekoarekin zabor mota bakoitza egun zehatz batean eskegi behar da kaleko poste batzuetan eta jendearen monotonia haustea ez omen da erraza. Lankideek argi dute: jendea kontzientziatzea beharrezkoa da, kontsumitzen dugunaz, sortzen dugun zaborraz, birziklatzeaz... Gehiago birziklatu nahi badugu zaborrak “anonimoa” izateari utzi behar diola uste dute: edozein zabor edozein edukiontzitara botatzen jarraitzeak ez du arazoa konponduko. Datu bat eman digute: bosgarren edukiontzia jarri den herrietan zaborraren %36 inguru birziklatu da, eta atez atekoarekin %80. Lehen kasuan ondorioa da: erraustegia beharrezkoa da. Atez atekoaren helburua da erraustegiaren beharrik ez dela erakustea, herritarren parte-hartze aktiboagoa eskatzen duen sistemaren bidez. Gurean izango al da eztabaida gizarteratzeko borondaterik?

Apirilean sekulako beroa, maiatzean hotza...

Zer ari da gertatzen? Zer nahiago duzu?



Marimar Prieto



Beharbada ozono geruzaren zuloarekin zerikusia izango du. Maiatzean halako hotza egitea ez dut batere gustuko. Gaizki sentitzen naiz. Pentsa, umea ere gaixotu egin zait. Izan ere, eguraldi aldaketa bortitz hauek ez dira batere onak. Eguraldi ona nahiago dut, baina 25ºtik ez pasatzea hobe.

Iñaki Kerejeta




Eguraldiaren joera naturalari dagokionez, ez dut uste hau normala denik. Apirilean ilusionatu egin ginen, baina... Aldaketa hauek guk eragindakoak dira: ez dugu ama lurra zaintzen eta gero komeriak... Nik ez dut beroa maite: 25ºrekin, primeran.

Baltasar Martín



Eguraldia aldakor dabil eta udaberri bete-betean sartuta egoteko, ez da normala horrenbeste hotz egitea. Apirilean behar baino lehenago ohitu ginen eguraldi onera eta gustura egoten da halakoetan... Aldaketa klimatikoaz hitz egiten da eta esango nuke horrek zerikusia duela eguraldiaren gorabehera hauekin.

Vicente Cambrero




Niri ez zait normala iruditzen eguraldiarekin gertatzen ari dena. Maiatza hasiera oso txarra izan da. Etsigarria. Beti udako eguraldia egingo balu askoz ere hobeto. Izan ere, lurralde lehor batean jaiotakoa naiz: Salamancan, alegia.

Gaia: Handitzean izan nahi nuke...

Doinua: Habanera

Julen Azpeitia




Arrantzale, pilotari,
mediku edo txoferra,
banku baten zuzendari
poltsikorako plazerra.
Futbolari famatua
hori bai gauza ederra,
txoria izango banintz
nahiko nuke izan eperra...
Milionarioa bestetik
ni izatez naiz alperra,
sofan etzanda egoteko
ez da aukera okerra,
sukaldaria izanik
patata, ogia, xerra,
munduan lan asko dago,
aukeratzea ankerra...

Buruan gauza asko ditut
besten ustez naiz motela,
ia ez dut pentsatua
ez dut kenduta pardela.
Nire buru txikitxoan
badakit zerbait dutela,
eta burmuinaren puntan
tapoitxo bat dagoela.
Azkenen tapoia atera
txikia hitza, itzela,
zertarako izan handia
zertarako izan ergela,
lanera beti korrika
aita ta ama bezela,
handia ez dut izan nahi
ondo nago ni honela.

iritziz iritzi


Joxe Manuel Bereziartua



Jaungoikoaren lana

Beharbada, irakurle sufritu hori (hiztegian begiratu dut, eta *sufritu* ez baina jasankor jartzen du dela hitz egokia, baina iruditu zait *sufritu* hobeto azaltzen duela esan nahi dudana) ez duzu jakingo nor den Lloyd Blankfein. Ea bada, Lloyd Goldman&Sachs munduko banketxerik ahaltsueneko burua da. Lloyd gizajoa sufrikario batean bizi da, jende gehienak ez du ulertzen bere lana. Duela gutxi USAko gobernuak (Goldman&Sachs USAn dago, noski) ikerketa bat zabaldu du bankuak trikimailu asko egin dituela susmatuta. Harrigarria gertatzen dena da kaltetuen artean ez direla denak igeltseroak, langabetuak eta soldata bakarrarekin aurrera egin behar duten bost laguneko sendiak. Banketxe handiak daude Goldman

&Sachsek egindako lapurreta sofistikuak jasan dituztenen artean. Lloydek eta bere lagunak ez daukate trebezia gutxi. Gu, gizajook, beti amestu dugu BBVAko bulego batean sartzea eta diru guztia hartutakoan laguna zain dagoen autoan sartzea eta... ospa!. Hori txapuza hutsa da! zenbat daukagun ikasteko Lloydengandik. Baina, nahiz eta sekulako artista izan, sufrikario batean bizi zaigu Blankfein jauna. Izan ere, elkarrizketa batean "Guk (Goldman&Sachs) Jaungoikoaren lana egiten dugu" esan zuen. Lloydek egiten duena ez du egiten jauregiak edo kotxe luxuzkoak edukitzeagatik. Gu, pobreak, beti bezala inbidiatsu eta miserable. Ez estutu, Lloyd jaungoikoak zeruarekin ordainduko dizu zure sakrifizioa.




Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza - ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

IKER

FAGOR








▼
Formula 1eko giroa Montmeloko zirkuitoan. 2010eko maiatzaren 9an.

Gotzon Aranburu



Joxe Mari Iparragirre

BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

Santa Barbara bidea z/g. - Telefona/fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
jmiparragirre@edunet.es - www.iparragirre.net - 20700 - URRETXU (Gipuzkoa)

ERIZAIN LAGUNTZAILEA


Erdi mailako heziketa zikloa
Osasun familia
A eta D ereduak

Aurrematrikula:

Maiatzaren 31tik ekainaren 11ra (biak barne).

Matrikula egiteko epea:

Uztailaren 7tik 13ra (biak barne).



Lanbide aukerak: Ospitaleko erizain laguntzailea, zaharren egoitzetan, eguneko zentruetan, lehen artapenetako laguntzailea, kontsulta pribatuetan, hortz-kliniketan laguntzailea, gaixoen zaintza.



PRODUKTU BIOLOGIKOAK - KOSMETIKA NATURALA
DIETISTA (DOAKO KONTSULTA) - MEDIKU HOMEOPATA KONTSULTA

Labeaga, 30 - Urretxu
☎ 943 72 27 80

Asensio Sudupe: Beti lanerako prest

Ekainaren 11n Asensio Sudupe zumarragarra omenduko dute Zelai Arizti aretoan Urretxu eta Zumarragako elkarteek. Sudupek bi herriotako hainbat ekimeneetan lagundu zuen eta diabetikoen elkarte sortu zuen. 'Otamotz' aldizkarian txokoa merezi zuen, baina herioak aurre hartu zigun. Lauri Angulo alargunarekin eta Angel Rico lagunarekin hitz egin dugu berari buruz.



Asensio Sudupe Ormazabal Zumarragako Ipintzan jaio zen duela 64 urte. Bere ama Goiburu baserrikoa zen eta aita Abeletzekoa. Bospasei urterekin Kontxita Medranorengana joan zen gaztelera ikastera. "Etxean euskaraz egiten zuten eta eskolara joan ahal izateko gaztelera ikasi behar izan zuen", dio bere alargunak. Ikasketak La Salle-Legazpi ikastetxean egin zituen. "Fraide batekin arazoak izan zituela gogoratzen zuen. Lagun bati azterketa utzi zion eta harrapatu egin zuten: berak ez zuen azterketa gainditu eta lagunak bai. Sekulako amorraldia hartu zuen eta eskolatik alde egin zuen. Rodriguez enpresan hasi zen lanean eta, garai hartako beste askok bezala, gauez ikasi egiten zuen".

Rodriguezetik Irimora joan zen eta handik Orbegozora. "Ezkonduta aurretik Orbegozora joan zen, diru gehiago irabazten baitzen. Baina Irimoko giroa

Orbegozokoa baino askoz ere gehiago gustatzen zitzaion eta, hiruzpalau urtera, itzuli egin zen. Urte txarrak pasatzea tokatu zitzaion: enpresa kinka larrian izan zen, berak osasun arazoak izan zituen... Gure alaba jaio eta gutxira bizkarreko operazioa izan zuen eta bederatzirats hilabete eman zituen bajaran. Hilabete haietan langileek dirua jarri behar izan zuten euren poltsikotik enpresa desagertu ez zedin”, gogoratzten du Lauri Angulok.

Sudupek dena ematen zuen sinesten zuen horren alde eta emazteak asko sufritu zuen. “Poliziak Gasteizko grebalaria hil eta gutxira Irimon greba egin zuten. Ni haurdun nengoen, baina Asensiok lantegian gelditzea erabaki zuen. Beti egoten da norbait *laguntzeko* prest eta Asensiok ni lagundu beharrean lantegian gelditzea erabaki zuela esatera etorri zitzaizkidan. *Beno, nire senarra auzi galduen alde beti...* erantzun nien. Atea itxi nuenean *etortzen zarenean bereak eta bi esan behar dizkizut*, pentsatu nuen”.

Irimoko langileek eta euren familiek asko sufritu zuten. “Behin 5.000 pezeta bakarrik nituela eta soldata noiz kobratuko zuen ez genekiela gogoratzen dut. Hilaren 20a zen eta teoriarik 26an kobratu behar zen, baina ez zegoen jakiterik. Ez nekien 5.000 pezeta haiekin astebete, hamabost egun edo hilabete eman behar nuen. Negar asko egin nuen, baina gauza politikak ere gertatu zitzaizkigun. Bizilagun bat janariz betetako saski batekin etorri zitzaigun: makarroiak, babarrunak, dilistak, esnea... Mundu honetan jende ona ere badago: beraiei esker egiten du aurrera gizarateak”.

Sudupek berak makina bat lan egin zuen gizaratearen alde, nahiz eta bere bizitzako azken 20 urteetan osasun arazoak izan zituen. Bizkarreko arazoak zirela eta, Irimoko lana utzi zuen. Katea enpresan ere lan egin zuen. Han bista arazoak azaldu zitzaizkion eta lan egiteari utzi zion. Baina ez zen etxean egotekoa. “Akzioa atsegin zuen. Beti zer edo zer egin beharra zuen. Ikastolan mutilak eta neskak entrenatu zituen, baina berak zuen prestakuntza baino handiagoa behar zela ikusi zuen eta utzi egin zuen. Agiriak bete behar ziren eta berak

Irimotik Orbegozora joan zen diru gehiago irabazten zelako, baina Irimoko giroa nahiago zuen eta itzuli egin zen

burokrazia gorroto zuen”, gogoratzen du Lauri Angulok.

Dena den, azkenean burokrazia ere domeinatu zuen. Diabetikoen elkartea sortu ondoren izan zen hori. “Asensio diabetikoa zen. *Pixka bat bakarrik*, esaten zuen berak begietako arazoa azaldu zen arte. Orduan konturatu zen bere arazoa larria zela. Gaixotasunagatik kezkatzen hasi zen, baina elkartea Donostian zegoen. Hori dela eta, eskualdean delegazioa sortzea erabaki zuen. Legazpiko Victoriano Arrazolak asko lagundu zion”.

Egun Angel Rico da Urgadiel diabetikoen


elkarteko lehendakaria eta ederki asko gogoratzen du Sudupe nolakoa zen. “Bridei tira egin beharra zegoen bera gelditzeko. Zer edo zertan ari zen beti, burua beteta zuen beti... *Asensio, goazen poliki-poliki, lehenengo hau egingo dugu eta gero bestea*, esaten nion”.

Ricok oso gaztetatik ezagutzen zuen Sudupe: biek pilotan jokatzeko zuten eta Irimo enpresan lan egin zuten. Lauri Angulok ere ederki asko gogoratzen du bere senarraren pilotari garaia. “Jabier Erostarbe zenarekin jokatzeko zuten. Ukabilean arazo bat izan zuen eta denbora luzea eman zuen jokatu gabe. Gainera, galtzaile txarra zen eta lana eta pilota uztartuz ez zegoen partidak irabazterik. Azkenean, utzi egin zuen. Garai hartan oso argala zen. Ezagutu nuenean grano asko zituela ere gogoratzen dut. Oso lotsatia zen eta hori asko gustatu zitzaidan”.

Angel Ricok, berriz, bere indarra azpimarratzen du. “Nik autoentzako piezen fabrikazioan lan egiten nuen eta berak mantenuan. Forjan ere lan egin zuen. Asensio indartsua zela gogoratzen dut. Sekulako besoak zituen. Berak sartu ninduen Urgadiel diabetikoen elkartearen. Ondo konpontzen ginen: bera akzio zalea zen eta ni lasaiagoa. 10 urte eman genituen elkarrekin lanean: hil zen arte”.

Azken hilabeteak oso gogorrak izan ziren berarentzat. “Buruan tumorea aurkitu zioten. Ez zuen halakorik espero, ordura arte ez baitzuen buruko minik izan. Ikusmen arazoak nabaritu zituen, baina diabetesaren eragina zela uste zuen. Nire ustez, gaixotasuna nahiko ondo eraman zuen. Gogorra izan zen, baina azken urte eta

Angel Rico lagunarekin diabetikoei Benidormen eskaini zieten omenaldian.



erdian jende askok lagundu zion”, aipatu du Angulok.

Ez da harritzekoa, asko baitziren Suduperekin zorretan zeudenak. Ricok Gipuzkoako diabetikoen elkarte berari esker dagoela bizirik gogorazi nahi du. “Lehendakariak, lehendakari ordeak... uko egin zioten eta ez zegoen ordezkorik. Elkarrekin lan egiteak dirurik eta osperik ematen ez duenez, asko kostatzen da lan egiteko prest dagoen jendea aurkitzea. Urgadielen jende faltarik ez zegoenez, Gipuzkoa mailako elkartearen ardura hartzea erabaki zuen. Kudeaketa lan oso ona egin zuen: egoitza berria ordaintzea eta elkartearen etorkizuna bermatzea lortu zuenean herrira itzuli zen. Hemen ere sekulako lana egin zuen. Dagoeneko ez zen lotsatia eta behar zen tokira inongo beldurrik gabe joaten zen. Gipuzkoako diabetikook eta Urretxu eta Zumarragako elkarteok asko zor diogu”.

Suduperen alargunak ia azken egunera

Beizaman, Urgadiel taldekoekin egindako lehen txangoan.



arte lanerako gogoari eutsi ziola gogoratzen du. “Tumorearen tratamenduko zenbait gauza ez zitzaizkion gustatu eta osatzen zenean gauzak aldatzeko lan egingo zuela esaten zuen. Elkarrekin

Urgadiel diabetikoen elkartera sortu zuen eta ondoren Gipuzkoa mailako taldea berpiztu zuen


hasi ginenean ez zuen etxeko telefona hartzen telefonoz hitz egiten gaizki moldatzen zela uste zuelako, baina azken

urteetan egun guztia telefonotik zintzilik ematen zuen. Jendaurrean hitz egiten ere ikasi zuen. Zen bezalakoa agertzen zen beti. Hori dela eta, jendea berehala konturatzen zen gustukoa izango zuen edo ez. Berak bazekien noiz zen norbaiten gustukoa eta noiz ez. Askotan esaten nion zakarra izan zela eta ezin dela horrela ibili”.

Angel Rico iritzi berekoa da eta Sudupe mundu guztiarengana modu berberean zuzentzen zela oroitzen du. “Politikoekin harremana izatea tokatu zitzaion eta berehala ikasi zuen politiko ona arreta jartzen duena dela. Hori dela eta, alderdi guztikoengana jo zuen. Nire ustez azkenaldian behintzat ez zuen alderdi politiko baten edo bestearen alde egiten”.

Politikoez ari direla, Lauri Angulok bere

Garai hartan oraindik emaztegaia zuen Lauri Angulorekin 1964ko Legazpiko jaietan.



senarra zenak eurekin izandako borroka latz bat gogoratu du. “Diabetikoak ezin dira lanpostu batzuetan aritu (Ertzaintzan, adibidez) minusbaliotasuna dutelako. Lan horietan postu batzuk gutxituentzat erreserbatzen dituzte, baina diabetikoak ez dituzte onartzen euren minusbaliotasuna ez delako behar bezain handia. Existituko ez balira bezala da. Asensiok sekulakoak egin zituen hori aldatzeko: alderdi guztietako ordezkariekin hitz egin zuen eta bi urteko lanaren ondoren guztiek egoera bidezkoa ez zela onartzea lortu zuen. Azkenean eskaera bidean galdu zen eta sekulako atsekabea hartu zuen”. Herritar xumeengana heltzea errazagoa da. Ricok kontatutako pasadizoa bere

Urola taldearen zuzendaritza taldeko kidea izan zen garaian.



izaeraren erakusle da. “Gure arazo nagusia elikadura da eta Orion egindako jardunaldi batzuetan gai horretaz hitz egin genuen. Azken egunean tranpa

*Pilotan eta futbolean
jokatu zuen, gaztetxoak
entrenatu zituen eta
Urolako zuzendaritzako
kide izan zen*

txiki bat egin genien parte hartzaileei: paella enkargatu genuen bazkaltzeko eta handik bi ordura guztiei glukosa maila neurtu genien. Jendeak oso emaitza txarrak eman zituen ez zuelako

hitzaldian aholkatutakoa egin: arroz gehiegi jan zuten. Asensiok, berriz, emaitza ona eman zuen. Are gehiago, emango zuen emaitza asmatu zuen. Medikua zur eta lur gelditu zen. Izan ere, elikadura, ariketa fisikoa, medikazioa... primeran kontrolatzen zituen. Bere gaixotasuna oso ondo ezagutzen zuen, mediku gehienek baino askoz ere hobeto”.

Lauri Angulok ez zela beti hala izan dio. “Hasieran, jendearen gehiengoak bezala, ez zion bere gaixotasunari garrantzirik ematen. Berandu samar konturatu zen gauza serioa zela eta gainontzeko gaixoei beti gauza berbera esaten zien: *egin behar ez denaren eredu nauzue*”. Orduan ere argi eta garbi hitz egin zuen Asensio Sudepek.

1933

Asalto goardiako poliziak Zumarragako Agirre harategiaren parean

1933ko hauteskundeen ondoren osatutako Espainiako gobernua eskuindarra eta kataluniar eta euskal abertzaleen aurkakoa zen. Bere lehen neurrietako bat ardoaren gaineko tasa kentza izan zen. Horrek euskal udalei galera handiak eragin zizkien, euren diru-sarreren erdia zerga horri esker lortzen baitzuten. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako alkate eta diputatuak Zumarragan protesta asanblada deitu zuten irailaren 2rako. Ekitaldia debekatu egin zen arren, parlamentari eta alkateak trenean etorri ziren eta udaletxera abiatu ziren, milaka lagunek lagunduta eta asalto goardiako poliziek jazarrita. Dantzariak eta txistulariak poliziek osatutako hesia aurretik eramane zuten eta batzarkideek, kolpeak jaso zituzten arren, bilera egitea lortu zuten.



Iker Zabaleta: Zailtasun guztien gaineratik, txirrindularia

Urretxuk eta Zumarragak kirolari bikainak eman dituzte. Batzuek kiroletik bizitza lortu zuten eta beste batzuk bidean gelditu ziren. Bigarren hauen artean 90 hamarkadan zeresan handia eman zuen Iker Zabaleta txirrindularia dugu. Istripu larria izan zuen, baina sekula ez dio bizikletan ibiltzeari utzi.

Sprint batean, erdian.



Iker Zabaleta zumarragarrik makina bat garaipen lortu zituen amateur mailan eta ONCE talde handiak profesional mailara pasatzea eskaini zion. Sinatu aurretik kamioi batek jo zuen eta urtebete behar izan zuen osatzeko. Lasterketa mundura itzuli zen eta garaipen gehiago lortu zituen, baina ez zituen eskaintza on gehiago izan. Lehiatzeari utzi eta Mari Jose emaztearen herrira joan zen bizitzera, Castellora. Ane Miren izeneko alaba dute eta duela zazpi urte Euskal Herrira etorri ziren, Urdiainera. Egun Master mailako probetan lehiatzen da. Hilabete honetan Zumarragako lasterketan bigarren egin du.

Zure aita ere txirrindularia izan zen. Berak zaletu al zintuen?

Aitak ez zuen nahi ni bizikletan ibiltzea. Futbolari izatea nahi zuen. Baloia aurrean jartzen zidan eta bizikleta aparte uzten zuen, Realaz hitz egiten zidan, Atotxara eramaten ninduen... Bera ezkutuan atzeratzen zen bizikletan ibiltzera nik ikusi ez nezan. Baina lagunaren bitartez Goierriren Oximek taldean hasi nintzen. Orduetik aitari laguntza izan nuen, nahiz eta txirrindularitza semearentzat gogorregia iruditzen zitzaion.

Lehen pausoak ondo gogoratzen al dituzu?

Bai, bai... Diego Blanco, Patxi Jarit, Iñigo Salegi, Mikel Larrañaga, Mikel Navarro, Aitor Izagirre lagun minarekin... ibiltzen nintzen. Gutxitan ikusten dugu elkar, baina ez dugu harremana galdu.

Noiz hartu zenuen bizikleta serio?

Baqué taldera pasa nintzenez. Ordura arte ez nuen buruan profesionala izatea, baina txipa aldatu nuen eta nahi nuen hori lortzeko sufritzen hasi nintzen. Iberdrola

taldean ez nuen dietarik jarraitzen, adibidez. Sei urte eman nituen amateur mailan, hiru Iberdrolan eta hiru Baqué taldean, istripua izan aurretik.

Istripua izan zenuenean profesional mailara pasatzeko zorian zinen.

ONCE taldearekin pasa behar nuen, baina kamioi batek harrapatu ninduen. Santa Clara taldeak berehala pasatzea eskaini zidan, baina denboraldi amaieran ONCErekin pasatzea nahiago nuela esan nien. Handik bi astera kamioiak jo ninduen eta gorputzaren ezkeraldea apurtu zidan. Urtebete behar izan nuen osatzeko.

Berriro lehiatu al zinen?

Bai. Ondo hasi nintzen. Lehen lasterketan bigarren egin nuen eta bigarrena irabazi egin nuen. Baina Extremadurako itzulian istripua izan nuen eta beldurtu egin nintzen. Ausardia galdu nuen. Arriskatzeak merezi ote zuen galdetzen nion neure buruari eta hala ez dago lehiatzerik. Irabazteko gogoak beldurra estali behar du. Denboraldia bukatu nuen eta hurrengo hasteko bi aste falta zirenean taldea desegin zen dirurik ez zuelako. Talde batek dirurik kobratu gabe profesionala pasatzeko aukera eskaini zidan, baina dagoeneko 24 urte nituen eta lanean hasteko ordua zela pentsatu nuen. Hala, txirrindularitza utzi nuen.

Ondo moldatu al zinen bizimodu berrira?

Bai. Bizikleta munduan, lan munduan bezala, *entxufe*a izanda edozein tokitara heldu daiteke. Nik ez nuen babesle onik. Beste askori berbera gertatu zaie eta ez dugu inongo amorrurik: bizikletan ibiltzen jarraitzen dugu. Dena den, Madariagarekin mokokaldiak izan nituen. Izan ere, Sabino Angoitiarekin

arazoak zituen eta Baqué taldekook ez genuen Euskaltelera pasatzeko aukerarik. Unai Etxebarriak Zaragozako CAI taldera joan behar izan zuen Euskaltelekin pasatu ahal izateko.

Zeintzuk dira profesionaletan aritu diren zure taldekideak?

Ricardo Otxoa zena, adibidez. ONCEk Errioxako itzulian eurekin parte hartzea eskaini zidan, baina ordurako estatuko selekzioarekin hitzemandako nengoan. Nire tokia Ricardo Otxoak hartu zuen. Ondoren Espainiako txapelketa irabazi zuen eta ONCErekin pasatu zen.

Zer nolako txirrindularia zinen?

Esprinterra nintzela esaten zuten, baina hemen ondo igo beharra dago esprinterari iristeko. Beasaingo helmugara, adibidez, Aitor Osarekin eta Iñigo Chaurreaurekin heldu nintzen Aztiria igo ondoren.

Profesional mailara pasa izan bazina, non egongo zinen zure ustez?

Urtebetean profesionaletara pasatzeko aukera nuela pentsatu nuen eta nire illusioa Jalaberten moduko txirrindularia izatea zen: erregularra. Amateur mailan neure modukoak David Etxebarria eta Igor Astarloa ziren. Beharbada egun bateko lasterketan itzulietan baino hobeto moldatuko nintzen.

Istripua etxeko guztientzat kolpe handia izango zen, baina aitarentzat gehiago beharbada.

Ez dit sekula horri buruzko ezer esan. Nire ustez izua sortu zitzaion. Noiz edo noiz utziko banu hobe izango litzatekeela esan izan didate, besterik ez. Baina mugitu samarra naiz eta bizikleta lasaitzeko baliagarria zait. Bakarti samarra ere banaiz eta bizikletan neure buruarekin bakean sentitzen naiz. Niretzat bizi-

kleta drogazalearentzat droga dena dela uste dut.

Sekula ez al diozu bizikletan ibiltzeari utzi?


Lehiatzeari utzi nioenean Valentziara joan ginen bizitzera eta hango eguraldia bizikletan ibiltzeko primerakoa da. Berehala egin nituen lagunak. Bizikletak horretarako ere balio du. Orain lehen baino gehiago gozaten dut, ez baitut presiorik.

Dena den, iaz lasterketa mundura itzuli zinen. Master mailako probetara, hain zuzen ere.

Goierriren Oximek, Caldeyf eta Century taldeetan nirekin ibilitako Azkoitiko lagun batek bultzatuta izan zen. Urdiainera etorri ginenetik Master kategoriako lasterketetan parte hartzeko esan eta esan ari zen eta iaz baietz esan nion bakean utz nezan. Arratsalde hartan bertan bere zuzendariak deitu zidan dagoeneko nire izena eman zutela esateko.

Zer moduz moldatu zara lehen urtebete honetan?

Iaz gauzak ondo atera ziren eta lasterketa dezente irabazi nituen. Lagunarteko lasterketak zirela uste nuen, baina taldeen eskaintzak jaso nituen: batzuek honakoa eskaintzen zidaten, besteek bestelakoa... Tuterako Goerna taldeak lagunak nirekin eramatea eskaini zidan eta horrekin sinatu nuen. Talde batzuek hotelak, bidaiak eta gainontzeko gastuak ordainduko zizkidatela esan zidaten, baina beldur apur bat eman zidan. Guri arropa eta kaskoa ematen dizkigute eta bizikleta kontuetan deskontua dugu. Urteik urtera Master kategoria indartzen ari da. Izan ere, amateur maila utzitako askok Master lasterketetan parte hartzea erabakitzen dute eta horiek maila



Eskuinetik lehena, 1994ko Goierriko itzulian.

oso ona dute. Amateur mailan baino lizentzia gehiago daude dagoeneko eta Nafarroa aldean gure lasterketek komunikabideetan presentzia handia dute. Nire ustez gozatzeko parte hartu behar ko genuke, baina... Lehen Master lasterketak duela zortzi bat urte korritu nituen Valentzian, baina giroa ez zitzaidan asko gustatu: txirriindulariak maltzur samarrak ziren. Hemen laguntasun handiagoa dago. Askok amateur garaitik ezagutzen dugu elkar eta lasterketa gogortu aurretik barre batzuk egiten ditugu.

Alabari gustatzen al zaio bizikleta?

Irailaren 16an 10 urte egingo ditu. Nire lasterketetara etortzen da eta zaletu egin da. Lehengoan bizikleta uzteko esan zidan eta ez zidan inongo graziaz egin. Alabari bizikletan ibiltzen irakatsi genion, baina gogorra egin zitzaidan.

Nire odola darama eta ez da harritzekoa izango bizikletan ibili nahi izatea. Ez diot ukatuko, baina... Errepidean ibiltzea arriskutsua da. Duela hiru urte, adibidez, auto bat gurutzatu egin zitzaidan eta klabikula hautsi nuen. Aukeran, nire ingurukoak bizikletan ez ibiltzea nahiago dut.

Arriskuarekin ez ezik, askok kirol hau dopingarekin ere lotzen dute.

Nik ez dut sekula dopingik ikusi, baina amateur mailan eman nuen azken urteetan aldaketa nabarmena eman zen: lehen urteetan gutxi ziren kontrolatu beharrekoak, baina bat-batean ordura arte makal ibilitako jendea ondo ibiltzen hasi zen. Horrek presioa areagotu egin zuen eta lasterketa mundua uzteko arrazoi bat gehiago eman zidan.

Profesioaletan lan bikaina egin zuten

Etxebarria, Astarloa eta Horrilloekin ibili zinen. Zer sentitzen zenuen telebistan ikusten zenituenen?

Beraiekin harremana dut oraindik. Horrilloekin, adibidez, joan zen astean hitz egin nuen. Iaz, istripua izan zuenean, ospitalera joan nintzen bisitatzer. Lasterketak irabazten zituzten bakoitzean asko pozten nintzen. Amateur mailan euren pare ibiltzen nintzen, gero ez nintzen profesionala izan, baina ez dut amorrurik horregatik. Niri gertatu zitzaidana beste askori gertatu zaie. Igor Miner ere, adibidez, oso ona zen eta ez zen pasa. Profesional mailara pasatzea oso zaila da eta, gainera, hasieran soldatak eskasak dira. Dirua irabazten dutenak gutxi dira. Bizikletan ibiltzen denak bere kirola maite du. Futbolariak ere euren kirola maite dute, baina kazkabarra egiten badu partida bertan behera uzten dute. Arabako itzulian elurra egiten hasi zen eta lasterketa bukatu behar izan nuen erregulartasunaren maillota soinean neramalako. Herrera mendatea dardarka igo nuen. Oso gaizki pasatu nuen. Hala ere, oraindik ere ahal badut egunero ibiltzen naiz bizikletan.

Emaztea Castelloko duzu. Nolatan?

Kadete mailan nengoenean estatuko selekzioarekin bertara joan nintzen eta hala ezagutu nuen. 18 urterekin noizean behin autoa hartu eta hara joaten nintzen. Neguan hilabete bat ematen nuen bertan entrenatzen eta denborarekin harremana finkatu egin zen. 16 nituenean hasi ginen elkarrekin eta dagoeneko 37 ditut.

Lasterketa mundua utzi zenuenean bertara joan zinen bizitzera.

Bere ama alarguna zen eta bertara joatea erabaki genuen. Ama hil zitzaionean,

berriz, hona etorri ginen. Hango etxea mantentzen dugu. Han primerako eguraldia dute bizikletan ibiltzeko, baina hona etortzeko gogoia nuen. Iberdrolan ibilitakook urtero afaria egiten dugu eta urtero etortzen nintzen.

Zertan lan egin duzu?

Alqueriasen bizi ginenean, Vila-Real ondoan, zeramika enpresetan lan egin nuen. Hona etorri ginenetik Sunsundegi enpresan lan egiten dut. Etorri bezain pronto Pozuetak lana eman zidan eta hori eskertu beharra dut. Duela zazpi urte etorri ginen.

Urdiainen bizi zarete. Zergatik?

“Emaztearekin askotan

valentzieraz hitz

egiten dut alabak

amaren hizkuntza galdu

ez dezan”

Zumarragan eta Urretxun ere etxebizitzak ikusi genituen, baina bi txakur genituen eta terreno txiki bat nahi genuen. Urdiain eta Arbizon izan ginen eta Urdiain gehiago gustatu zitzaidan txikiagoa delako. Herri txikietan bizitzera ohitu naiz eta Urretxu eta Zumarraga handiegiak iruditzen zaizkit.

Non entrenatzen duzu?

Otzaurte eta Lizarrustiko itzulia askotan egiten dut. Oso polita da eta azkar joanez gero gogorra egiten da. Eguraldi txarra egiten duenean Lizarra aldera joaten naiz. Bizikletan ibiltzerik ez dudanean, berri-

paseatzea gustatzen zait: Iturmendi, Bakaiku, Etxarri...

Sakana aldean txirrindulari profesional asko daude. Entrenatzen al duzu beraiekin?

Aurten, izan dudan osasun arazoa medio, ez. Iaz, berri, abendua erdialde-arte beraiekin ibili nintzen: Egoi Martinez, Jorge Azanza, Pablo Urtasun urdiaindarra... Neguan beraiekin ibil naiten, baina sasoi hartzen dutenean... Iker eta Igor Flores ere Urdiaingoak dira. Igorrekin ibiltzen naiz, baina Iker Iruñean bizi da. Herriko festetara bakarrik etortzen da, eskopeta kargatuta!

Emaztea ondo moldatu al da Euskal Herrira?


Urdiainen koadrila du, ni baino irekiagoa baita.

Eta alaba?

Bi urte zituen oraindik etorri ginenean. Nik euskaraz egiten nion beti eta hona etorri ginenean ikastolara bidali genuen. Alabak eta biok beti euskaraz egiten dugu. Emazteak, entzutearen poderioz, ulertzen du. Alabak valentzieraz ere badaki. Izan ere, Castelló Kataluniatik gertu dago, emaztearen senitarteko gehienak kataluniarrak dira eta valentzieraz hitz egiten dute beti. Emaztearekin askotan valentzieraz hitz egiten dut, alabak amaren hizkuntza galdu ez dezan. Orain arte lotsa ematen zion, baina aurten valentzieraz hitz egiten ausartu da hara joan garenean.

Erraz ikasi al zenuen valentziera?

Ez nuen aparte sentitu nahi eta ez zela zaila iruditu zitzaidan. Hasieran entzuz eta gero hizketan egiten ausartuz ikasi nuen.



Alex Areizaga

Informatika

Anonimotasun aplikazioa

Tor aplikazioa sarean anonimotasuna bermatzeko software proiektua da. Tunel birtualen sare bat da, pertsoneri eta taldeei interneten pribatutasuna mantentzea ahalbideratzen diena, trafiko analisiaren aurka defendatuz. Jendeak, webguneek rastreatu dezaten ekiditeko erabiltzen du *Tor* edota baita webguneak kudeatzeko ere, lokalizazioa ezagutzera eman nahi ez den kasuetan. Nabigatzaileen indarra moteltzen du sistema honek, eta eraginkortasuna norberak frogatu beharko du, edota euren webgunean diotena sinestu. Hala ere, aurkezpenean diotenez, "milaka pertsonak erabiltzen dute *Tor*: kazetariak, bloggerrek, giza eskubideen aldeko langileak, segurtasun indarrek, soldaduek, elkarteak, erregimen errepresiboek zapal dutako herritarrek edota hiritar normalek". *Torproject.org* webgunean deskargatu daiteke aplikazioa eta bertan ere irakurri daiteke luze eta zabal proiektuaren inguruko informazioa. Bertan ematen dira erabiltzeko azalpenak ere. Irakurri eta norberak erabaki dezala zer iruditzen zaion.



Izaro Soraluze

Osasuna

Dermatitis atopikoa

Azaleko gaitzik ohikoenetakoa da. Kasuen %60an bizitzako lehen urtean hasten da eta %85ean lehen 5 urteen barruan. Gorputzak inguruko estimulu jakin batzuen kontra edo baldintza emozional ezberdinen aurrean modu exageratuan erreakzionatzen du. Gaixoeak azala oso lehor izaten dute eta, azkura handia ematen duenez, hatz egiterakoan lesioak eta infekzioak sortzen dituzte. Badira egoera okertzen duten faktoreak: azalarekin kontaktuan dauden arropak (artile eta ehun sintetikoak), ingurugiroko baldintzak (beroa, hezetasuna), janari batzuk (esnea, zitrikoak, tomatea, kafea, txokolatea, marrubiak, alkohola...). Higiene neurri egokiak hartzea eta produktu egokiak erabiltzea da garrantzitsua. Bainu azkarrak, ur epelarekin eta gel bereziekin. Gehiegi igurtzi gabe lehortu eta, azala pixka bat heze dagoela, krema hidratatzaile bereziak eman. Azkazalak moztu infekzioak ekiditeko. Agerraldiak gogorak direnean, dermatologoak kortisona duten pomadak erreze-ta ditzake. Berehala konpontzen dute arazoa, maiz erabiliz, ordea, larruazaleko atrofia ekar dezake.

Bihar izango dira kontuak

9:00

Geroz eta nagitasun handiagoa ematen du goizean denda irekitzeko garaiz jaikitzeak. Garraio-gizonak etortzen direlako kamioiak hustu eta dendako apalak betetzera, bestela...

-Egun on, etxeakoandre!

-Egun on! Oraintxe irekiko dizut biltegiko atea.

-Ondo da.

Iraungi egiten dira jakiak, galdu egiten dira fruta eta barazkiak, gora doa argindarraren prezioa eta hilero-hilero ailegatzen dira fakturak. Eta kontuak ez dira ateratzen.

-Hurrena arte, etxeakoandre!

-Poliki joan!

-Itxi dugu biltegiko atea.

-Eskerrik asko!

12:00

Ez dago ordubete aurretik denda ixteko prestatzen hastea baino gauza tristeagorik. 12:55 arte ez da hurrengo bezeroa etorriko.

-Eguerdi on, Koro!

-Baita zuri ere! Lauzpabost txanpon, mesedez!

-Tori.

-Eskerrik asko.

Eta beste galdutako goiz baten sentsazioarekin joango da etxera, goserik gabe eta burua jatera.

12:55

Dena txukun-txukun dago. Badator goiza ixteko espero zen azken bezeroa.

-Eguerdi on, Koro!

-Baita zuri ere! 11,38 euro, mesedez.

-Tori, justu ematen dizut. Bihar arte!

-Eskerrik asko, aio!

16:30

Zertarako lehenago etorri ezer prestatzera. Arratsaldeko

lehenengo bezeroa etorri arte, izango da goizean desordenatu ez dena atontzeko tarterik.

18:00

Mugimendua nabari da dendan. Edonola, eskuko hatzekin kontatu ahalko dira gaur ere bezeroak.

-Arratsalde on!

-Kaixo!

-Zer moduz, Koro?

Umeen meriendarako dozena-erdi bat sagar. Oliba-olioa, botila bat. Gatza. Tetrabrik pare bat esnea, 2 kg patata, baratxuri-buru sorta bi... Betikoa, eta pozik egon behar!

18:15

Zertara ote datoz tente mantendu ezin daitezkeen gazte horiek dendara?

-Viva denda honetako andrea!

-Ssssss! Ez eskandalurik egin. Bota egingo gaituzte eta!

-Bota.... Desafioa bota didazu kalamidade horrek...

Nireak gehiago pisatu baietz!

-Hementxe dago fruta eta barazkien saila. Atera ezazu zure aparatutxoa, ea balantzara iristen zaizun. Ja, ja, ja!

-Hasi zeu! Ez zara txilibitua atera eta pisatzera ausartzen ala? Txori txikiak ez du kabitik atera nahi...

Amaia Artolazabal Amilleta

www.otamotz.com/index.php Web orrian ipuina osorik irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

Iñaki Okariz

Iñaki Okariz zumarragarra aurtengo Aizkorriko maratoian parte hartu duen herritarretako bat da. 27 urte ditu. Ikastolatik eta lizeotik pasa ondoren, Ordizian eta Tolosan ikasi zuen. Soldatzaile titulua du. Legazpin lan egin zuen, Oria eta Ulma enpresetan, eta egun Beasaingo CAFen dihardu. Kirola betidanik du gustuko. Ingurukoen eraginez hasi zen korrika egiten. Bere lehen lasterketa Lasarte-Oriakoa izan zen eta duela bi urte lehenengoz Behobia egin zuen. Mendiko lasterketetan, berriz, aurtengoa bigarren denboraldia du.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Gainontzeko mutiko guztiek bezala, futbolaria.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Mendira joatea, lagunekin egotea, raketan jokatzeara...

Bizitzeko toki bat?

Zumarraga.

Gustuko mendiko lasterketa?

Herrian antolatzen dena, nondik nora gabiltzan jakitea mese-degarria baita. Aizkorriko maratoia ere asko gustatu zitzaidan. Egiteko gogoia nuen eta, sufritu nuen arren, oso gustura gelditu nintzen.

Zer nahiago duzu, aldapak igotzea ala jaistea?

Biak. Gustuko tokian aldaparik ez.

Zer gustatu zitzaizun gehien?

Giroa eta horren lasterketa garrantzitsua bukatu izana.

Zer izan zen gogorrena?

Sancti Spiritutik gorako bidea.

Berrito parte hartzeko asmorik ba al duzu?

Bai, bai...

Gustuko mendia?

Lehen zazpi puntak egiten nituen, baina orain entrenamendu luzeagoak egiten ditut eta Izazpi, Samiño eta Oletako buelta egiten dut.

Ileheriak ala beltzaranak?

Denak.

Egindako azken oparia?

Izeba Begoñari oparitutako kosmetikoak. Nire amabitxia da.



Eta jasotakoa?

Neure buruari egindakoak balio al du? Egin didaten azkena zein den ez dut gogoratzen eta...

Data bat?

Santa Lutzi eguna. Udaberri hasiera ere asko gustatzen zait.

Mutil eta neska izen bana?

Aratz eta Haizea.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Tabernan lehenengo topatzen dudana. Bat baino gehiago bada-gogoa, bat baino gehiago irakurtzen dut.

Gustuko telebista saioa?

Ez dut telebista ikusteko ohitura handirik. Azkenaldian *El conquistador del fin del mundo* ikusten dut.

Bereziki gorroto duzuna?

Gran Hermano.

Liburu bat?

Aspaldi honetan ez dut libururik irakurri.

Pelikula bat?

La vida de Brian.

Soinu bat?

Olatuek ateratzen dutena.

Usain bat?

Amak prestatutako jakiena.

Janari bat?

Patata tortila eta gazta tarta.


Ura ala...

Garagardoa.



Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 7
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Etxebizitzen eraikuntza
Industria pabilioiak
Urbanizazio lanak

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

☎ 943 72 41 00

e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09

e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA